

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

244/2019 Foru Agindua, irailaren 24koa, zeinaren bidez adierazten baita Lantarongo udalerriko lurzoru urbanizaezinean Puentelarra eta Fontecha herrietako ur hornikuntzarako biltegi berria eta loturak eraikitzeke proiektuaren interes publikoa, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak sustatuta

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko Herrilan Atalak Lantarongo Udalarari obra lizentzia eskatu dio udalerriri horretako 3 poligonoko 743 lurzatian ur biltegi berria eraikitzeke, Larrazubi eta Fontecha hornitzeko. Eskieran jasotzen denaren arabera, obra beste proiektu handiago baten zatia da, hain zuzen, Sobron sistemaren egungo hornikuntza hoditeria berriztatzea, bidebanatzeetik Bergondarantz; biltegi berri komuna egitea Larrazubi eta Fontecha guneeetarako; eta desbideratzea Larrazubira banaketa hoditeria biltegi berritik. Obrak arinago egiteko asmoarekin, bi fasetan banatu dira. Lehenengo fasea da soilik biltegi berria egitea eta egungo sareei lotzea.

Lantarongo Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen barruan proiektu teknikoa dago, baita udal arkitektoak emandako txostena ere, non jasotzen den 35-3-743 katastro erreferentziako lurzortia lurzoru urbanizaezinean sailkatutako lurra dela eta 2. zonan kalifikatuta: "Substratu hauskorrean babestu beharreko nekazaritza eta abeltzaintza babes zona"; udalerriko indarreko arau subsidiarioetan jasotakoaren arabera, eta erabilera baimendu gisa hartzen du onura publiko eta interes sozialeko instalazioak eta azpiegiturak jartzea, arau horien 201. artikulua arabera. Txostenean ere jartzen du Araba Erdialdeko LPParen antolamendu arauen arabera ez dagoela eragozpenik egin nahi den instalazioa kokatzeko aipatutako lurzatian Fontechan, eta lizentzia lurralde planeamenduari bat datorrela justifikatzen dela.

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezartzen duen araubideari jarraituz, lurzoru urbanizaezinean "ezin da beste jardunik gauzatu aplikatzeko den legedia sektorialak edo lurralde planeamenduak interes publikokotzat jotako zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak baizik, baldin eta, gainera, dagokion foru diputatuaren ebazpenaren bidez, interes publikokotzat jotzen badira, alde aurretik hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea beteta"

Uztailaren 26ko 196/2019 Foru Aginduaren bidez, hasierako onespina eman zitzaion interes publikoaren adierazpenari buruzko espedienteari, eta erabaki zen jendaurrean ipintzeko 20 eguneko aldi bat hastea, hura ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Izapide hori 2019ko abuztuaren 12an bete zen (92. zk.). Horretarako emandako epean, ez da aurkeztu alegaziorik.

Interes publikoa, aztertzen ari den kasuan, azpiegituraren izaeratik dator (edateko ur biltegi erregulatzaile berri bat), haren helburua Toki Araubidearen Oinarrien Legeko 26.1.a artikuluan aurreikusitako zerbitzu bat ematea baita. Xedapen horretan, udalek kasu orotan eman behar dituzten zerbitzuak jasotzen dira, eta horien artean etxerako edateko ur hornikuntza dago.

Instalazioa landa ingurunean kokatzeko beharrari dagokionez, azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da lur horietan.

Urtarrilaren 18ko 13/2019 Foru Aginduaren bidez, Puentelarra eta Fontechako hornikuntzarako biltegi berria eraikitzeke eta goi sarea berriztatzeke proiektuari buruzko ingurumen inpaktuaren txostena eman zen.

Horregatik, eta dauzkadan ahalmenak erabiliz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lantarongo udalerriko 3 poligonoko 743 lurzatian, lurzoru urbanizaezinean, Puentelarra eta Fontecha herrietako ur hornikuntzarako ur biltegi berria eta loturak eraikitzeke proiektuaren interes publikoa adieraztea, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Proiektu hura, Sobron sistemaren esparruan hornikuntzako oraingo hoditeria berriztatzean datzan proiektu zabalago baten l. urratsa da.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal lizentzia lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikoaren adierazpenak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsoa.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 24a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO